

BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA**SAN MARTZIAL 40**

Egilea eta data: Jose Clemente de Osinalde; 1881

Deskribapena

Mehelin arteko eraikina, jatorriz behe oina eta lau goi oin dituena, gehi 1919ko jasodura mantsardatu bat (jatorrizko estalkipearen eraberritze gisa). Harlanduzko fatxada, metalezko begiratokia duena eskuinaldeko baoan, atariko ardatzarekin bat eginik (gaur egungo zutabe gisako begiratokiak jatorrizko banako begiratokiak ordeztzen ditu). Behe oina hareharriz xaflatuta dago, atariko baoaren ingerada izan ezik. Jatorriz proiektu komuna San Martzial 42rekin eta Urbietan 7rekin.

Babes erregimena

- 1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
- 2.- Berariazko erregimena.
 - A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: 5. oin mantsardatua; begiratokia.
 - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
 - C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
 - * Begiratokiaren tratamendua ordenantza orokor horietan ezarritako irizpideetara egokituko da.
 - * Erregimen orokor hori arautzeko gainerako baldintzak betetzeari loturikoak, hala badagokio.